



ALKATETZA DEKRETUA 477/2017,
2017ko azaroaren 22koa

IORITZ IMAZ BAZTARRIKA jaunak, Idiazabalgo Alkate Udalburuak, apirilaren 7ko Toki Erakundeetako 2/2016 Legearen 25.7 artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan xedatutakoaren arabera,

IKUSIRIK

Idiazabalgo Udaleko Alkate-udalburuak proposatu du Idiazabalgo haur-, nerabe- eta gazteen ekimenak eta parte-hartzea sustatzeko zerbitzua (PSZ) kontratatzeko espedientea hastea. Kontratatu nahi dituen zerbitzuak ondoren aipatzen direnak izango dira:

- A. Udal Ludoteka.
- B. Opor garaietako Ludoteka (Aste Santu eta udako oporraldiak).
- C. Gaztelekua.
- D. Opor garaietako Gazte Aisia (Aste Santu eta udako oporraldiak).

Hona hemen kontratazio-proposamenaren datuak:

Unitate sustatzailea: Alkatea/Kultura- arloa/ Gazteria arloa

Kontratu mota: Zerbitzua, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 10. artikuluan xedaturikoa.

Kontratuaren xedea: Haurrentzako, nerabeentzako eta gazteentzako zerbitzuak

Epea: 2 urte

Kontratatari ordaintzeko prezioa:

-Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua: 115.650,48 €; horietatik 95.578,91 € printzipalari eta 20.071,57 € % 21eko BEZari.

Kontratuaren balioetsitako prezioa: 425.129,60 € da (%21eko BEZ-a kanpo)

Loteak: Ez

Luzapena: Bai (2)

Aldaketak: Bai

Eraginak: 2018ko martxoaren 1etik aurrera

Aurrekontu izendapena: 1.227.00.337.20.

Esleitze jardunbidea: Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua, esleitzeko hainbat irizpide.

-Izapidea: Arrunta

AINTZAT HARTURIK

Lehengoa. Eskumena.

Azaroaren 14ko Sektore Publikoko Kontratuen 3/2011 Legearen Testu Bateratua onartzen duen Legegintzako Errege Dekretuaren II. Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoari jarraituz, zerbitzu, hornikuntza, kontratu pribatu edo kontratu berezietako kontratazio-espedienteetan kontratazio organoa izatea Alkate-Lehendakariari dagokio, kontratazioaren aurrekontuko baliabide arruntan %10a gainditzen ez dutenean, eta, dena den, 6.000.00€-ko diru kopurua mugatuz(...)

Bigarrena. Araubidea.

-2014/24/EB Direktiba, otsailaren 26koa, Europako Legebiltzarrarena eta Kontseiluarena, kontratazio publikoari buruzkoa, 2004/18/EE Direktiba indargabetzen duena (aurrerantzean "Kontratuen Direktiba").



-2014/23/EB Direktiba, otsailaren 26koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, emakiden kontratuak eskeitzekoa (aurrerantzean "Emakiden Direktiba").

-Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua

A) Kontratazio espediente: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 109. xedatzen duenez, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espedientea egin behar da. Espedientea Lege horren 109. artikuluan ezarritakoaren arabera egin da eta 110.1 artikulua xedatzen duenaren arabera onartu beharko da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

Espedientea aztertu ondoren, honako dokumentuok dituela egiaztatu da:

- Espedienteari hasiera emateko proposamena
- Idazkari Kontu-hartzailearen txostenak, kreditu-izaera eta legezketasuna egiaztatzen dituztenak
- Administrazio-Baldintza Zehatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoen Orria.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 109. xedatzen duenez, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espedientea egin behar da. Espedientea Lege horren 109. artikuluan ezarritakoaren arabera egin da eta 110.1 artikulua xedatzen duenaren arabera onartu beharko da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

B) Kontratuaren izaera: Kontratu honek administrazio-izaera du, zerbitzuko hitzarmena hain zuzen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 10. artikuluan xedaturikoaren arabera.

C) Espediente mota: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 109, 110, 112 eta 113 artikuluetan xedatu denez, kontratazio-espedienteak hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen, aruntak edo ohikoak, presazkoak eta larrialdietakoak. Presazkoak, 112. artikuluan arautzen dira honakoaren arabera: "geroraezinak edo, herri-onuraren arazoientatik, lehenbailehen esleitu beharrekoak diren kontratuen espedienteak presaz tramitatu ahal izango dira. Horretarako, espedienteak presa adierazpena eduki beharko du, kontratazio organoak eginda eta behar bezala arazoituta." Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.

Larrialdietakoak aldiz, 113. artikuluan arautzen dira, ondorengoaren arabera: " hondamen gertaeretan, arrisku handia eragiten duten egoeretan edota nazio-defentsari eragiten dien beharrei erantzuteko, Administrazioak berehala erantzun behar izaten duen kasuetan..."

Kasu honetan, kontratazio-espediente hau tramitazio aruntaren bidez izapidetuko da, kontratu honen unitate sustatzaileak adierazitakoarekin bat etorritik.

D) Esleipena egiteko jardunbidea eta modua:

Kontratuaren esleipena publizaterik gabeko jardunbide negoziatu bidez bideratuko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 138.2, 169., 170 c) eta 178. artikuluetan, eta 2014/24/EB Direktibak, otsailaren 26koa, Europako Legebiltzararena eta Kontseiluarena, kontratazio publikoari buruzkoa, 2004/18/EE Direktiba indargabetzen duena (aurrerantzean "Kontratuen Direktiba") 31.2



a) artikuluan xedatutakoari jarraiki. Izan ere, aurreneko lizitazioa hutsik geratu da (Azaroaren 22ko 476/2017 Dekretua).

Bestalde, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 169. artikuluan ezarritakoaren arabera, jardunbide negoziatuan Administrazioak behar bezala aukeratutako enpresariari esleituko dio kontratua, kontratuaren gorabeherak enpresari batekin edo gehiagorekin eztabaidatu eta negoziatu ondoren, 178. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Gainera, artikulua horrek dioenaren arabera, gaitutako gutxienez 3 enpresei bidali beharko zaizkie lizitazioan parte hartzeko gonbidapenak.

Adierazitako kontratuaren ezaugarriak eta lizitazioaren oinarriko aurrekontua kontutan izanik, esleipena publizitaterik gabeko jardunbide negoziatuaren bidez egitea proposatzen da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 177.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Izapidetzea ohikoa eta esleipendunaren aukeraketa zenbait irizpideetan oinarritu dela, Legearen 150.1 artikuluan adierazitakoaren arabera

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontutan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatzen da, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren taula erantsiaren P) atalean zehazturiko irizpideen arabera hain zuzen ere, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 150. artikulua aurreikusitakoa betez.

Araudi harmonizatua jarraitzen ez duen zerbitzu-kontratua da 2014/24/EB Direktibak, otsailaren 26koak, Europako Legebiltzarrena eta Kontseiluarenak, kontratazio publikoari buruzkoak, 4 d) artikuluan eta XIV. eranskinean xedatutakoari jarraituz.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontutan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatzen da, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 13. klausulan zehazturiko irizpideen arabera hain zuzen ere, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 150. artikulua aurreikusitakoa betez.

E) Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoen Orria: Kontratazio-espedientearekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoen Orria aztertu dira, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 115. eta 116. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa kontutan harturik, araututako xedapenekin bat datorrela egiaztatu delarik.

Aipatu Baldintza Orrian, proposamenak balioesteko irizpide ekonomiko eta teknikoak arautu dira, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 150. artikuluan xedatutakoaren arabera.

F) Ez dago langileen subrogaziorik: Lehen ez zegoen kontrataziorik.

G) Kontratazio-espediente hau izapidetzen ari da gastu-espedientea baino lehenago azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 110.2 artikulua xedatutakoaren arabera. Kontratuaren esleipena baldintzatzen 2018. aurrekontuan kreditu nahiko eta egoki izatera: "Los expedientes de contratación podrán ultimarse incluso con la adjudicación y formalización del correspondiente contrato, aun



cuando su ejecución, ya se realice en una o en varias anualidades, deba iniciarse en el ejercicio siguiente. A estos efectos podrán comprometerse créditos con las limitaciones que se determinen en las normas presupuestarias de las distintas Administraciones públicas sujetas a esta Ley”.

Azken urteetan kreditua kontsignatuta egon da zerbitzu hau ematea sustatzeko (diru laguntzaren bitartez).

Horrenbestez,

EBAZTEN DUT:

LEHENGOA. Idiazabalgo haur-, nerabe- eta gazteen ekimenak eta parte-hartzea sustatzeko (PSZ) kontratazeko zerbitzuaren kontratazio-espeditentea hastea, publizitaterik gabeko jardunbide negoziatuaren izapide arruntak erabiliz.

BIGARRENA. , 115.650,48 €ko gastua onartzea; horietatik, 95.578,91 € printzipalari eta 20.071,57 € % 21eko BEZari dagozkie, honako aurrekontu izendapen honen lepotik: 1.227.00.337.20. Kontratazio-espeditentea hau izapidetzen ari da gastu-espeditentea baino lehenago azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 110.2 artikulua xedautakoaren arabera. Kontratuaren esleipena baldintzatzen 2018. aurrekontuan kreditu nahiko eta egoki izatera.

Kontratuak izango ditu eraginak 2018ko martxoaren 1etik; hortaz, lehen aipatutako prezioan (115.650,48 €), deskontu proportzionala egingo da.

HIRUGARRENA. Kontratuak gauzatzeko erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoen Orria onartzea.


LAUGARRENA Esleipen-jardunbideari hasiera ematea, dagokion iragarkia kontratatuzailearen profilean argitaratuz eta proposatutako 3 lizitatuzaileei gonbitak luzatuz, lizitatuzaileek beren proposamenak 15 egun naturaleko epean aurkez ditzaten, gonbita jasotzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

BOSGARRENA. Udaltzari horren berri ematea, egingo duen lehengo bilkuran.

SEIGARRENA. Ebazpen honen berri Kontabilitate unitateari ematea.

Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du.

ALKATE UDALBURUAK
Ioritz Imaz ~~Bazterika~~



Nire aurrean,
IDAZK KONTU HARTZAILEAK
Isabel Fuertes Matxin